



**kontsumoBIDE**

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



# Saihestu arriskuak

Kontsumoko Prestakuntza Adinekoentzat



# Etxean erabiltzen diren produktu kimikoak



Etxean maiz erabiltzen diren produktu asko (**garbiketa-produktuak, intsektizidak, pinturak eta abar**) arriskutsuak izan daitezke. Horregatik, osasunerako edo ingurumenerako balizko eragin negatiboek buruz **ohartarazten gaituzten sinboloak** dituzte etiketan. **Komeni da horiek identifikatzea:**



## SUKOIA

Produktua erre daiteke kontaktu beroarekin edo airearekin, edo urarekiko kontakturako gas sukoiek igortzen dutenera.



## LEHERGARRIA

Produktua lehertu egin daiteke beroarekin ukipenean.



## ERREGARRIA

Beste substantzia batzuen errekuntza eragin edo erraztu eta sutea edo leherketa eragin edo areagotu dezaketen substantzietz osatuta dago produktua.



## GASA

Presiozko gasa duen eta berotzen denean lehertu egin daitekeen ontzi bat dela ohartarazten du, erredura edo lesio kriogenikoak eragin dezakeen gas hoztuarekin



## KORROSIBOA

Produktuak erredura larriak eragin ditzake larruazalean eta begietako kalteak, eta metaletarako ere korrosiboa da.



## TOXIKOTASUNA

Produktua larruazala ukituz gero, inhalatuz gero edo irentsiz gero guztiz toxikoa dela ohartarazten du, eta hilgarria izan daitekeela.



## NARRITADURA, TOXIKOTASUNA

Produktuak honako hau eragin dezake: toxikotasun akutua, larruazalaren eta begien narritadura, amasketarako narritadura, logalea edo zorabioak.



## OSASUNERAKO ARRISKUA

Produktuak oso eragin kaltegarriak izan ditzake osasunerako amasketaren bidez, alergiak eta asmak sor ditzake, eragin kantzerigenoak izan ditzake, eta abar.



## ARRISKUTSUA INGURUNE URTARRERAKO

Produktua toxikoa edo kaltegarria izan daiteke uretako organismoentzat.

# Kosmetikoak

Produktu kosmetikoak ez dira guztiz kaltegabeak, giza gorputzean eragina dute, eta beraz:



- Erosi **beti produktu etiketatuak**, etiketa segurtasun-bermea baita. **Etiketa informazio-elementu** garrantzitsuenetako bat da.
- Ezin baduzu ondo irakurri edo ez baduzu ulertzen etiketa, galdetu establezimenduan.
- Kontuan izan **kontsumo lehenetsiaren data**: data horretara iritsi arte produktuak, baldintza egokitan kontserbatuta badago, hasierako funtzioa betetzen jarraitzen du.
- Gogoan izan **osagaien zerrenda** garrantziaren araberako ordena beherakorrean agertzen dela. Aukeratu ahalik eta produkturik naturalenak.



# Medikamentuak

Medikamentuak oker erabiltzea arriskutsua izan daiteke gure osasunarentzat.




- **Ez utzi publizitateak lilura** zaitzan, eta saihestu automedikazioa. Soilik behar dituzun eta osasun-profesionalek errezetatu edo adierazi dizkizuten medikamentuak kontsumitu, eta hartzeko adierazi dizuten moduan hartu.
- Erosi medikamentuak saltzeko araututa dauden establezimenduetan soilik. **Interneten** bidez erositakoek ez dituzte beti eskaintzen beharrezko bermeak, gogoan izan, **legalki**, mediku-preskripziorik behar ez duten medikamentuak bakarrik erosi ahal izango dituzula.

# Eguzkitako betaurrekoak

Araudia betetzen ez duten eguzkitako betaurrekoak erabiltzeak begietako gaixotasunak eragin ditzake (konjuntibitisa, erredura-puntuak begietan, eta abar). Horregatik, horrelako produktuak erosi baino lehen, kontuan izan honako hau:

- Lente ilun batek **ez du bermatzen** babes-maila handiagorik.
- Emango diozun **erabilerara** (hiria, mendia, udan eguzki askoko guneak, eta abar) **egokitzen den** eguzki-babeseko iragazkia duten eguzkitako betaurrekoak aukeratu.
- Eguzkitako betaurreko guztiak **gidatzeko** egokiak dira, 4. iragazkia dutenak salbu. Ez erabili gaez gidatzeko.
- Eguzki-babeserako betaurreko guztiek ziurtatu behar dute Europar Batasunak ezarritako baldintzak betetzen dituztela. Hala bada, **CE marka** edukiko dute.



**CE** marka (Europako Erkidegoa).  
**Izpi ultramoreen** aurkako babeska (UV).  
**Iragazkiaren** kategoriaren zenbakia.  
Betetzen duten **araudiaren** erreferentzia (EN 1836:2006).

Informazio gehiago:

[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)  
[www.aecosan.msssi.gob.es](http://www.aecosan.msssi.gob.es)  
[www.aemps.gob.es](http://www.aemps.gob.es)